

AKELARRE LUDOTEKA
COVID 19ARI AURRE EGITEKO KONTINGENTZIA-PLANA
2020-2021 IKASTURTEA

AKELARRE LUDOTEKAREN KONTINGENTZIA-PLANA

1.- EGOERAREN AZALPENA

Plan honen helburua jokogune seguru bat eskaintzea da, eta haren helburu zehatzak honako hauek dira:

- i- Osasun-krisia dela-eta, 2020-2021 aldian sor daitezkeen egoerak prestatzea.
- ii- Ludotekako gazteen eta langileen higiene-, garbitasun- eta segurtasun-baldintzak bermatzea.
- iii- Alternatiba bat eskaintzea, lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea ahalbidetze aldera.
- iv- Adingabeen garapen psikoemotionalan eta pandemia-egoera honetan haurren normalizazioan laguntzea, haurrek jolaserako duten eskubidea bermatuz.

1.1. "Normaltasun berria" diseinatzeko kontuan hartutako legediaren eta erreferentzia teknikoen laburpena

Erreferentziako informazioa:

- **COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua honako betebeharrak ezartzen ditu:**
<https://www.boe.es/eli/es/rdl/2020/06/09/21/con>
- **Nafarroako Gobernuaren ERABAKIA, 2020ko ekainaren 19koa, Nafarroako Foru Erkidegoa normaltasun berrira sartu dela deklaratu duena.**
<https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&cad=rja&uact=8&ved=2ahUKEwi1gdmws9brAhWSCWMBHS8DBnIQFjABegQIChAE&url=https%3A%2F%2Fwww.navarra.es%2Fdocuments%2F48192%2F4313301%2FAcuerdo%2Bnueva%2Bnormalidad.pdf%2Fe58871b9-8e88-ode5-4820-off45be165c4%3Ft%3D1592572457542&usg=AOvVaw3ixwDZ5Bj27JBPA2DF4wb6>
- **Ohiko galdera ez-sanitarioak normaltasun berrirako trantsizio-planari buruz (2020/08/31).**
<https://www.navarra.es/documents/3860554/3937821/Preguntas+frecuentes+no+sanitarias+sobre+el+Plan+para+la+transici%C3%B3n+hacia+una+nueva+normalidad+COVID-19.pdf/255eec6c-e9e3-f971-55e4-0813235eb2b0?t=1595424528635>
- **COVID-19ren aurkako prebentzio-gomendioak haur eta gazteen aisialdiko eta denbora libreko jardueretan.**
<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/2B788205-9126-4FCC-97DC-D3029D8EDEC5/464128/Recomendacionesactividadesdeocio.pdf>

- **Prebentzio- eta antolaketa-protokoloa, 2020-2021 ikasturterako aurrez aurreko hezkuntza-jarduera garatzeko (2020ko abuztuaren 28an eguneratua)**
<https://www.educacion.navarra.es/web/plan-de-contingencia>
- **"Normaltasun berri baterantz Trantsiziorako Planari buruz ohiko galdera ez-sanitarioen dokumentuan", haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko jarduerari buruzko baldintzak jasotzen dira, honela:**
62 P- Haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko jarduerak bete beharreko baldintzak. *Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egin ahal izango dira, betiere jarduera horiek egiten diren bitartean pertsonen arteko segurtasun-distantziari eusteko beharrezko neurriak ezartzen badira, edo, halakorik ezean, maskarak erabiltzen badira, bai eta Osasun Sailak, hala badagokio, ezartzen dituen bestelako gomendioak betetzen badira ere.* Aurreko paragrafoan aurreikusitako jarduerak aire zabalean egiten direnean, parte-hartzaileen kopurua jardueraren ohiko gehieneko gaitasunaren % 75era mugatu beharko da, gehienez ere 250 pertsonarekin, monitoreak barne. Jarduerak espazio itxietan egiten direnean, parte-hartzaileen kopurua esparruaren gehieneko edukieraren % 50era mugatu beharko da, gehienez ere 100 pertsonarekin, monitoreak barne. Jarduerak egiten diren bitartean, gehienez ere 15 laguneko taldeetan antolatu beharko dira parte-hartzaileak, monitoreak barne. *Ahal den neurrian, jarduerak eta elkarreraginak talde horietako kide diren pertsonetara mugatuko dira.* Eten egiten dira abuztuaren 22ko 107/2005 Foru Dekretuak arautzen dituen kanpaldi eta ibilaldietarako administrazio-baimenak. Dekretuak Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteendako jardueretarako baldintzak ezartzen ditu, besteak beste"
- **COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua honako betebeharrak ezartzen ditu:**
a- *Lantokien ezaugarriak eta erabilera-maiztasunari egokitutako aireztapen-, garbiketa- eta desinfekzio-neurriak hartzea, kasu bakoitzean ezartzen diren protokoloen arabera.*

b- *Langileen eskura ura eta xaboia jartzea, edo gel hidroalkoholikoak edo eragin biruzida duten desinfektatzaileak, eskuak garbitzeko Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratutakoak.*

c- *Lan-baldintzak egokitzea, lanpostuen antolamendua eta txanden antolaketa barne, bai eta leku komunak erabilera ere, langileen artean gutxienez 1,5 metroko pertsonen arteko segurtasun-tartea dagoela bermatzeko.* c- *Hori ezinezkoa denean,*

langileei dagoen arrisku-mailara egokitutako babes-ekipamenduak eman beharko zaizkie.

d- Neurriak hartzea, langile, bezero edo erabiltzaile asko lantokietan pilatu ez daitezen aurreikuspenen arabera jende gehien biltzen den ordutegi-tarteetan.

e- Lanera pixkanaka berriro itzultzeko eta telelanaren erabilera sustatzeko neurriak hartzea, lan-jardueraren izaeragatik posible denean.

Bestalde, ikastetxeei buruzko 9. artikulua honako hau dio:

a- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3. artikuluan jasotako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko zein pribatuak titularrek ikastetxe horiek desinfektatzeko, prebenitzeko eta egokitzeko ezartzen dituzten arauak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute hezkuntza-administrazioek.

b- Nolanahi ere, behar diren antolaketa-neurriak hartuko direla ziurtatu beharko da, pilaketak saihesteko eta gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea mantentzen dela bermatzeko. *Segurtasun-distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, kutsatze-arriskuak prebenitzeko higiene-neurri egokiak hartuko dira.*

Hori guztia oinarri hartuta, Nafarroako Gobernuaren ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko protokolo orokorrak (sarscov-2), 2020-2021 ikasturtean, transmisio-arriskua nabarmen murrizten lagun dezaketen bost lan-ildo jasotzen ditu:

a- Pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izango da. Tarte hori mantentzea oinarritzko neurria da infekzioa transmititzen duten eta hitz egitean, doministiku egitean edo ezul egitean sortzen diren arnasketa-tanten barreiatze-erradiotik kanpo egotea.

b- Maskarak erabiltzea eta arnas higiena. Maskara erabiltzea arnas higienezko elementua da infekzioa ez barreiatzeko, pertsonak elkarrengandik oso hurbil daudenean eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia gutxienez 1,5 metrokoa izatea ezinezkoa denean. Doministiku edo ezul egitean, maskara eraman ezean, garrantzitsua da behin erabiltzeko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko. Musuzapirik eduki ezean, ukondo tolestuarekin estali behar dira.

c- Eskuen higiena. Eskuak behar bezala garbitzea neurri garrantzitsua da eskuek gainazaletatik birusa transmititzeko duten gaitasunagatik. Urarekin eta xaboiarekin egin daiteke, baita soluzio hidroalkoholikoekin ere.

d- Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena. Maiz garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Aldian-aldian eta egokiro

aireztatzea oso tresna garrantzitsua da espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko.

e- Kontaktuak gutxitzea Mugatu egin behar da talde-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua. Ahal dela, jarduerak talde txikietan egin behar dira, talde egonkorak osatuz eta segurtasun-tartea mantenduz haien artean.

2- SEGURTASUN- ETA HIGIENE-NEURRIAK:

2.1- Edukiera murriztea:

Ludotekako aretoaren edukiera 84 lagunekoa da. Ludotekako aretoaren edukiera 84 lagunekoa da. Nafarroako Gobernuak ezartzen duenez, espazio itxietako jardueretarako, parte-hartzaileen kopurua esparruaren gehieneko edukieraren % 50era mugatu behar da, gehienez ere 100 pertsonarekin, monitorea barne.

Parte-hartzaileen kopurua (alda daitekeen kopurua, hezkuntza-premia berezietarako).

- Astelehen eta astearteetako saioak: 15 adin txikikoak.
- Asteazken eta ostegunetako saioak: 20 adin txikikoak.

2.2- Maskarak erabiltzea:

Pertsona guztiek maskara erabili beharko dute ezinbestean, honako hauek izan ezik: maskara erabiltzeagatik larriagotu daitekeen arnas hartzeko zailtasuna duten pertsonak, desgaitasuna edo mendekotasuna duten gazteak eta maskara jartzeko/kentzeko autonomiarik ez dutenak edo jokabide-arazoak dituztenak. Azken kasu horretan, egoera hori justifikatzeko agiria aurkeztu beharko da.

Jarduerak ez badu uzten maskara erabiltzen, segurtasun-tartea mantenduko da.

2.3. Eskuak garbitzea:

Eskuen higie egokia da kutsatzea saihesteko neurri garrantzitsuetako bat. Gelarekin eta urarekin eta xaboiarekin garbitu beharko dira komunean, eta, ondoren, eskuak lehertzeko gailuarekin edo erabilera bakarreko paperezko eskuoihaltxoekin lehortu.

Eskuak garbitzea nahitaezkoa izango da honako egoera hauetan:

- Ludotekako aretora sartu aurretik.
- Komunera joan aurretik eta ondoren.
- Ludotekako aretotik irten aurretik, gel hidroalkoholikoarekin.
- Ludotekako arduradunak edo begiraleek beharrezkotzat jotzen duten guztietan.

2.4-Aireztapena:

Aldian-aldian aireztatuko dira komunak eta ludoteka: iritsi aurretik, saioan zehar, saioen artean eta amaitzean.

2.5- Materialak:

- a- Hurrek ez dute objekturik edo jostailurik ekarri behar etxetik.
- b- Erabilitako materiala talde bakoitzarentzat bakarrik izango da, eta saioa amaitutakoan desinfektatu egingo da, berrogeialdian utzita, 48 orduz, berriro erabili arte.
- c- Oro har, ez da materialik, janaririk, edaririk edo antzekorik partekatuko.

2.6- Komuna erabiltzea:

Higiene pertsonaleko protokolo bat jarraituko da komuna erabiltzeko, eta bertara banaka joango da: eskuak garbitzea-komuna erabiltzea-eskuak garbitzea. Lehortzeko, esku-lehorgailua erabiliko da.

3- ANTOLAKETA-NEURRIAK:

3.1. Adin-talde egonkorak:

Saio bakoitzeko taldeak egonkorak izango dira, eta ezin izango da aldaketarik egin taldeen artean.

Pandemia dela-eta, ludotekan ere burbuila-taldeak sortzea komeni da. Horregatik ez da inor onartuko ludoteka ireki eta astebetera, nahiz eta plazak egon. 2021eko urtarrilean egoera berraztertu ahal izango da osasun-egoeraren arabera.

- 1. taldea: 2016, 2015, 2014 eta 2013. urteetan jaiotakoak.
- 2. taldea: 2012an eta aurreko urteetan jaiotakoak.

3.2-Saioak:

- a- Astelehen eta astearteko saioek 1 ordu eta 30 minutuko iraupena izango dute.
- b- Asteazkeneko eta osteguneko saioek ordubeteko iraupena izango dute.

Asteazkeneko eta osteguneko saioen artean, ordu laurden bat utziko da gune komunak eta bereziki sentikorak diren guneak garbitzeko: heldulekuak, eskudelak, argi-giltzak eta abar.

3.3- Tailerretan antolatutako saioak:

Ludoteka jolasteko gune segurua izan dadin, Covid delakoaren aurrean plangintza bat ezarri da, tailer-formatuareki (joko-tailerrak, dantza-tailerra eta jolas dramatiko tailerra). Helduek zuzendutako jarduerak dira, eta haietan jokoa egungo segurtasun-neurrietara egokituko da.

- a- Astelehen eta astearteetako saioak: 1 eta 2 taldeak, hurrenez hurren, 16: 30etik 18: 00etara.
- Saio horiek ludotekak zuzendutako jolasekoak izango dira, bai eta jolas planifikatuak ere, kontaktua mugatzeko eta materiala banaka erabiltzen laguntzeko. Ludotekako arduraduna bakarrik egongo denez, edukiera 15 adingaberentzat izango da.

b- Asteazken eta ostegunetako saioetan, ludotekariak gain, tailergileak ere izango dira:

b.1- asteazkena: 1. taldea: dantzari aplikatutako psikomotrizitatea (15:00-16:00) eta 2. taldea (16:15-17:15): dantza modernoaren hastapenak.

b.2- osteguna: 1. taldea: dramatizazio jolasak (16:30-17:30) eta 2. taldea (17:45-18:45): jolas dramatikoa. Bi egunetan ordu laurden bat utziko da bi taldeen artean espazioa higienizatzeko.

3.4.- Sartzea.

Zorua seinaleztatuko da pertsonen arteko 1,5 m-ko segurtasun-tartea mantentzeko.

Igogailua ahal den gutxien erabiliko da, mugikortasun-aniztasunak eragindako benetako beharrak daudenean baino ez.

a- adingabeak: ludotekak beheko atean hartuko ditu haurrak, eta bide emango die modu mailakatuan sar daitezen eta alfonbra batean zapatak garbi ditzaten.

Egoera horretan, ezinbestekoa da jarduerara garaiz joatea, bai sartzeko, bai irteteko.

Zapatak garbitu ondoren, goiko solairura sartuko da, eta, bertan, eskuak garbituko dira (komun bakoitzeko adingabe bat bakarrik).

b- Helduak:

b.1-Ludotekaren sarreran eta ludotekako gelan helduak sartu ahal izango dira, baldin eta 4 edo 5 urtetik beherakoak laguntzen ari badira edota inguruabar pertsonalak direla-eta, ludotekako arduradunaren baimena dutenak. Kasu horretan, adingabeek bete beharreko segurtasun- eta higiene-neurri berberak beteko dituzte.

b.2- Gainerako heldu laguntzaileak ezin izango dira ludotekan sartu, ezta beheko solairuko sarrera ere; kalean itxaron beharko dute, maskara jarrita eta segurtasun-distantzia errespetatuz. Nolanahi ere, ahalik eta denbora gutxien egon beharko dute espazio horretan.

3.5- Irteera:

a- Eskuak hidrogelarekin garbitu eta mailaka aterako dira, segurtasun-distantzia errespetatuz.

b- Helduak: Kalean itxarongo dute.

4-NEURRI OSAGARRIAK

4.1. Hondakinen kudeaketa.

Hondakin arrunten kudeaketak ohiko moduan jarraituko du, hondakinak bereizteko protokoloak errespetatuz.

Gomendagarria da erabili eta botatzeko zapiak paperontzietan edo estalkiz betetako edukiontzi poltsadunetan botatzea (ahal bada, pedaldun zaborrontziak erabiliko dira).

Higiene pertsonaleko material oro (maskarak, eskularruak, etab.) errefusean botako da.

Norbaitek sintomarik badu, zapiak edo erabilitako beste produktu batzuk utzi dituen edukiontzia isolatu beharko da.

Zabor-poltsa hori atera eta bigarren zabor-poltsa batean jarri beharko da, itxiturarekin, errefusean uzteko. Kontuz ibili beharko da hondakinak eskuz ez ukitzeko eta poltsak ixtean aerosolak ez sortzeko.

4.2. Jarduerak mugatzea.

Mugatu egingo dira pertsona-pilaketak eragin ditzaketen jarduerak.

4.3. Informazioa:

a- Izena emandako gazteen familia guztiei ludotekako kontingentzia-planaren berri emango zaie.

b- Bete beharreko araei buruzko informazioa jarriko da sarreran, hain zuzen ere, segurtasun-distantziari, maskara erabiltzeko derrigortasunari, edukierari eta sartzeko araei buruzkoa.

4.4. Autogarbiketarako materiala:

Ludotekak autogarbiketako kita izango du, honako hauekin:

Gel hidroalkoholikoa

- Sanytol antzeko desinfektatzailea
- Papera, garbiketa eta desinfekzioa errazteko
- Autogarbiketarako erabilitako papera eta hondakinak botatzeko kuboak

4.5. Ludotekako materiala mugatzea

a- Soberan dauden elementu guztiak kenduko dira, baldin eta ezinbestekoak ez badira, eta ukitzeko modukoak badira.

b- Erabilitako materiala talde bakoitzarentzat bakarrik izango da, eta saioa amaitutakoan desinfektatu egingo da, berrogeialdian utzita, 48 orduz, berriro erabili arte.

5- LANGILEEK BETE BEHARREKO PREBENTZIO-NEURRIAK.

Laneko arriskuen prebentziorako enpresak ezartzen duen planari jarraituko zaio.

6- COVID-19 KASUEN KUDEAKETA LUDOTEKAN

6.1. Jarraibide orokorrak

a) Haurrak ludotekara JOAN BEHAR DU osasun-egoera onean badago.

B- Haur batek EZ DU GAZTETXOKORA JOAN BEHAR egoera hauetan:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain badago

Isolamenduan badago, PCR bidez diagnostikatutako koronabirus-infekzio bat duelako.

Berrogeialdian badago, COVID kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.

- Koronabirus bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak baditu

6.2. Haurra ondoezik badago:

a- isolatu egingo da.

b- Tenperatura hartuko zaio.

c- Familiari deituko zaio, bila joan daitezen.

d- Larri badago, 112 zenbakira deituko da.

6.3.- Covid kasu bat izan daitekeela susmatzen bada:

Ludotekako arduraduna osasun zentroarekin harremanetan jarriko da behar diren argibideak jasotzeko.

